

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzoko bilera: Erdigunea+Legarre

DATA: 2024/11/26

Saila	Laburpena	
Hirigintza	Bizilagun batek igogailu bat eskatu du Birgiñapen, Toribio Etxeberria kalea Kalbetoi kalearekin lotzeko. Teknikari batekin hitz egin dute, eta orain bilera eskatu du Udalean.	Maila pribatuan lan egiten ari da, Toribio Etxeberria eta Birjiñape 1 arteko igogailua jartzeko. Ez da lehentasunezkoa leku horretan igogailu publiko bat jartzea. Dagoeneko hainbat bilera egin dira bizilagunekin gai honen inguruan.
Udaltzaingoa	Bizilagun bat kexu da Kalbetoi kalean dagoen aparkaleku faltagatik. Zenbaitetan espaloiaren gainetik aparkatu behar izaten du, baina udaltzainek horrela ez aparkatzeko esaten diote. Zer aukera dauka?	Toribio Etxeberria kalean doako denbora baterako aparkalekuak daude. Alde horretan aparkatu daiteke eta pegorara hurbildu. Bestela, zamalanetarako gunea erabil daiteke, baina espaloi gainean ezin da aparkatu. Espaloian aparkatuz gero, Poliziak isuna jartzeko obligazioa du.
Zerbitzuak	Bizilagun berak dio Kalbetoi 6ko atzeko aldea belarrez beteta dagoela.	Kalbetoi 6ko atzealde hori pare bat aldiz garbitu da 2025ean.
Hirigintza	Bizilagun baten iritziz, Errektxuberriko leihoak oso bistan geratuko dira, eskailera berriak egin direlako. Toki batetik gora igo daiteke. Hori horrela, neurriren bat hartzea eskatzen du.	Urbanizazioetan eskailera berriak egiten direnean, kontuan hartzen da lehendik dauden etxebizitzaren segurtasunean duen eragina. "Oso agerian geratuko diren leihoen gaineko eragina". Horri buruz galdetzen da Bidebarrietako atzealdeei buruz ari direla, eta horietan ErrektxuBerriko sustatzaileak konpentsazio-neurriak hartu dituela, bizilagunekin adostu zirenak.
Hirigintza	Bizilagun batek Julian Etxeberria kaleko berrurbanizazioari buruz galdetzen du.	Ez da 2026ko aurrekontuetan sartuko. Gaur egun, lehentasun handiagoko hainbat proiektu ditugu. Proiektu hau oso garestia izateaz gain, 2027ko aurrekontuen parte izatea nahi dugu.
UDALTZAINGOA	San Juan kaleko bizilagun bat kexu da Aldatz tabernarengatik: taberna gatazkatsua da, atsedean hartzen uzten ez duena. Dioenez, ez du	Taberna barruko zarata Hirigintza Sailean aztertzen ari dira: establezimenduko musika-ekipoa, neurketak, ekipo-mugatzaila, etab.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzoko bilera: Erdigunea+Legarre

DATA: 2024/11/26

Saila	Laburpena
Obrak	araudia betetzen: ez dituzte ateak ixten, musika altu egoten da. Irtenbideak eskatzen ditu, denbora luzea daramatelako arazo berarekin. Auzokide bat kexatzen da Eibartik pasatzean trenak sortzen duen zaratagatik. Tarte bat dago Ardantzako geltokiaren eta 1. zenbakiaren artean, bikoizketagatik. Kontua nola dagoen galdetzen du. Gainera, obra zinegotziak esan zien lasai egoteko, aztertuko zela gaia.
Alkatetzak	Gizon batek hauxe dio udako zineari buruz: aurten, hilak 5 ostegun izanda, 4 pelikula proiektatu dira. Inguruko herrietan pelikula gehiago eskaintzen dira. Sarri egiten da kontrola tabernak ateak zabalik izan ez ditzan eta zarata kanpotik entzun ez dadin. Eztabaidak eta borrokan sortu ahala kontrolatzen dira. Aukera eman zitzaion Obra Siletik pasatzeko azterlanaren berri izan dezan, kontua nola dagoen ikusteko.
Udaltzaingoa	Auzokide berak dio Marsiren parean taxientzako aparkalekuak daudela, eta inoiz ez direla okupatuta egoten. Horiek erabiltzeko baimena eskatzen du. Bestalde, Untzaga Plaza hoteleko terraza erabili ahal izatea eskatzen du, martxora arte ez baitute terrazarik jarriko (baimena eman da). Asko eskertzen dugu interesa eta iradokizuna. Hala ere, uste dugu egungo erritmoak ondo funtzionatzen duela Eibarrentzat: astean film batek udako jarduerari eusteko aukera ematen digu. Inguruko udalerri batzuetan saio gehiago eskaintzen badituzte ere, uste dugu formatu horrek guretzat egokia izaten jarraitzen duela.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek dio patinete elektrikoek ez dutela inolako araudirik errespetatzen, eta horren harira zerbait egitea eskatzen du. Ez da egia inoiz ez daudela okupatuta. Askotan egoten dira okupatuta. Hala ere, erreserba-gunea antolatu eta murriztu egin da; izan ere, ikusi da ez zela behar hainbeste toki. Patinete elektrikoek dagokienez, kontrolak egiten dira.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzoko bilera: Erdigunea+Legarre

DATA: 2024/11/26

Saila	Laburpena
Udaltzaingoa	Auzokide batek dio asteburuetan, trafikoa ixten denez, zenbait tokitara joateko buelta handia eman behar izaten dutela. Hobetzea eskatu du.
Zerbitzuak	Bizilagun bat kexu da Legarreko garajeen egoeragatik. Badaki udalak proiektu bat duela esku artean, baina urgentziaz zerbait egin beharra ikusten du, euria egiten duenean erabili ezinda egoten direlako.
Udaltzaingoa	Miraflores 5eko gizon batek kexa bat jarri zuen patio komunitario batean animalia batzuk zeudelako egoera txarrean. Albaitariak animali horietako bi eraman zituzten, baina hirugarrena egoera berean dago.
Obrak	Gizon batek dio orain dela bi urte Arrajolako pinu batzuk moztu zirela, eta orain, euria egiten duenean, bidea urez beteta geratzen da. Erretenak guztiz tapatuta daude eta pista ez da lehengoratu.
Zerbitzuak	Gizon berak dio udaberrian Milafloresen ez zirela sastrakak moztu, udazkenean bakarrik garbitu zela ingurua. Bestalde, dioenez, inguru horretan hainbat kale-argi daude funtzionatzen ez dutenak. "S" erako bihurgunean sastrakak daude zintzilik, behealdekoak baino ez baitira moztu.
	Aukera aztertu da, baina ezin da egin. Eibarko helburua da oinezkoei kotxeei baino lehentasun handiagoa ematea. Ulertzen dugu traba eragin dezakeela, baina denon ongizatean pentsatu behar da. Legarre 6ko (San Andres egoitza) sabaiei azpian konponketak egiten ari dira, ura jasotzeko plaken bidez. Hala ere, uste dugu kexa frontoiaren azpiko garajeen ingurukoa dela. Hori Obra Sailak eramaten du. Dagoeneko txakurra ez dago toki horretan. Gaia ez dagokio Obrak Sailari, baina konpontzeko eskaera egin da. SASIAK: Ekainean egin zen inausketa bat. KALE-ARGIAK: Urtarrilean LED erako luminariak jarri ziren Milafloresen, hiruzpalau gelditu ziren aldatu gabe irisgarritasun arazoengatik. Aztertzen ari dira horiek nola aldatu daitezkeen. Bestalde, lan-agindua egin zen okertuta dagoen eta kaxa irekita duen kale-argia konpontzeko. Kaxari behin-behineko konponketa egin zitzaion arazorik egon ez zedin, eta behin betiko konponduta geratu zen 2025/02/18an.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzoko bilera: Erdigunea+Legarre

DATA: 2024/11/26

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatzen du Alfa ikastetxea zeneko lursailaren argiztapena lehengoratzeari. Eraikina bota ondoren ez da jarri.	Ikuskaritza egin ondoren, jakinarazi da inoiz ez dela argiztapen publikoa egon inguru horretan. Zeuden fokoak ikastetxekoak bertakoak ziren.
Zerbitzuak	Legarreko “kolorinetako” igogailua sarri hondatzen da. Gainera, Udalbus zerbitzuaren inguruko informazioa eskaintzen zuen zutoina kendu egin zen orain egun batzuk.	Jakinarazpenak zuzenean TKE enpresara iristen dira zuzenean; Udalbuseko seinaleari dagokionez, Udaltzaingoak kudeatzen du.
Udaltzaingoa	8. garajea hobetu egin da egoera (txarto aparkatzen zen), baina jendeak ibian edo espaloian aparkatzeko ohitura dauka. Horrez gain, Legarren 9an piboteren bat jartzeko eskatzen du.	Kontrolatu eta isunak jartzen dira horrelakorik ez gertatzeko. Pibotea edo seinalea jartzeari dagokionez, Zerbitzuak Sailera pasatu da handik bideratu dezaten.
Hirigintza	Mekolako gizon batek zoriondu egiten du igogailu berria jarri izana, baina beste bat eskatzen du gorago igotzeko. Horrez gain, dioenez, inguruan eskailera berriak egin dira baina guztiz bukatu gabe daude.	Mekolako bigarren igogailua Jardiñetako lehena egiten denean egingo da.
Zerbitzuak	Udaletxe atzeko paseora igotzen den igogailu zaharrak gutxitan funtzionatzen du, eta, gainera, zikina dago. Gainera, aparkatzea debekatzen duen seinale bat kendu da hortik.	Seinalea dagoeneko jarrita dago. Bestalde, igogailuen garbiketaren ardura duenari egoeraren berri eman zaio, arazoa konpondu dezan. Igogailua hondatzen denean, jakinarazpenak zuzenean iristen dira TKE enpresara.
Obrak	Auzokide batek galdetzen du ea badagoen jarduera-planik Ardantzako paseoko “parke gorrian”: zorua koxkaz eta zuloz beteta dago. Galdetzen du ea bigarren igogailua egingo den eta non.	

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzoko bilera: Erdigunea+Legarre

DATA: 2024/11/26

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Bizilagun bera kexu da koxkaz betetako guneretan apurtutako hoditeria bat dagoelako (5 zenbakiaren atzealdean), usain txarra eragiten duena.	San Juan-Mekola atzealdeko berrurbanizazio-lanak lizitazioan daude, beraz, laster hasiko direla aurreikusten da. Igogailua dela-eta, aurreko proiektua idatzi da eta 2026ko aurrekontuetan sartzea aztertzen ari da. Laster berrurbanizatuko da ingurua.
Hirigintza	Legarreko auzokide batek dioenez, 3-5-7 zenbakietako espaloia estuegia da, pertsona bakarra ere ez omen da sartzen.	Bai, badakigu, baina ezin da ezer egin. Espaloia hori da bizilagunak ez irteteko zuzenean errepidera.
Zerbitzuak	Udaletxearen atzeko aldean dagoen komun publiko berria 23:00etatik aurrera itxita egongo da. Zabalatzeko eskatzen du. Era berean, kexu da Udaletxearen atzeko aldeko argiak ez dutela funtzionatzen.	Auzo-bileraren ondoren ordutegia eguneratzeko abisua eman zen. Lehen 07:00etatik 23:00etara; orain, 24:00ak arte.
Zerbitzuak	Udaletxe atzeko parkean txakurrek txiza eta kaka egiten dutenez, dena zikin uzten dute.	Gauza horiek kontrolatzen saiatzen gara, herri garbi egon dadin. Herritarren ardura eskatzen da horrelakorik gerta ez dadin, baina, zoritxarrez, beti dago garbitasunari garrantzirik ematen ez dion jendea. Dena dela, behar denean kontrolatzen eta garbitzen saiatzen gara.
Zerbitzuak	18:00etatik aurrera Otaolan argi gutxi dago, eta baldosa asko egoera txarrean daude.	Kontua ez da argirik ez egotea, baizik eta zuhaitzek itzala ematen dutela. Baldosa direla-eta, lan hori egiten ari da, baina eskobatzeko makinarekin garbitzearen ondorioa da.
Obrak	Bizilagun batek galdetzen du ea badagoen azterlanik Legarreko uholdeei buruz.	Bai, azterlana eginda dago, eta obra 2026rako dago aurreikusita.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzoko bilera: Erdigunea+Legarre

DATA: 2024/11/26

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Ordenantza aldatzea eskatzen du bizilagun batek, txakur-jabeak behartzeko animaliek txiza egin duten tokian ura botatzera. Gainera, zerbait egiteko eskatzen du gazteek igogailuetan edo herri-altzarietan ekintza bandalikorik egin ez dezaten.	Gaia aztertzen ari gara. Bigarrenari dagokionez, laster kamerak jarriko dira.
Obrak	Arrajolatik Urkora doan pista egoera okerrean dago.	Konpontzeko eskaera egin da.
Zerbitzuak	Gizon bat kexatzen da Miraflores aldean argirik ez dagoelako.	Urtarrilean LED erako luminariak jarri ziren Milafloresen; hiruzpalau gelditu ziren aldatu gabe irisgarritasun arazoengatik. Aztertzen ari dira horiek nola aldatu daitezkeen. Era berean, lan-agindua egin zen okertuta dagoen eta kaxa irekita duen kale-argia konpontzeko. Otsailean egin zen.
Obrak	Mekola kalean sartzeko aldapan nahiko zulo handia dago.	Uste dugu Arratebide 14an dela, kutxatila bat hondoratuta zegoen eta. Orain dela bi hilabete Iberdrolak baimena eskatu zuen ondo jartzeko. Eman egin zitzaion, eta dagoeneko konponduta dago.
Zerbitzuak	Arratebideko bizilagun baten iritziz, bertako garbitasuna oso txarra da. Dioenez, garbitzaileak erretzen egoten dira eserita, dagokien lana egin gabe.	Belarrak direla eta (auzo-bileran horretaz hitz egin zuten, nahiz eta laburpenean ez dagoen jasota), sasi guztiak kendu ziren 2025/01/17an eta 2025/01/24an. Une honetan goiko aldea garbitzen ari da eta berriz ere iritsiko da eskatzen den gunera.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzoko bilera: Erdigunea+Legarre

DATA: 2024/11/26

Saila

Laburpena

Legarreko garbitasunari dagokionez, astelehen, asteazken eta ostiraletan egiten da.